

AGIRIAK, KOPIAK ETA ZIURTAGIRIAK PRESTATU ETA TRAMITATZEKO ETA INTERESDUNEK ESKATURIK FAXEZ AGIRIAK BIDALTZEKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

2002ko otsailaren 27ko 25. NAOn argitaratua

Xedapen orokorra

1. artikulua. Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 100. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean ezarri da ordenantza hau.

Zergagaia

2012ko urtarrilaren 24ko 16. NAOn argitaratua

2. art. Udal administrazioak edo udal agintariak luzatu edo hartzen dituzten agiri hauek alderdi baten eskariz tramitatzea da ordainarazpen honen xedea:

-Agiriak tramitatzea, horien legezko betekizuna baldin bada egunkari edo aldizkarietan haien gaineko iragarkia argitaratzea.

-Ziurtagiriak.

-Fotokopiak.

-Konpultsak.

-Agiriak faxen bidez igortzea.

-Hirigintza nahiz katastro mailako txostenak.

-Ordenantza honen 5. artikuluan aipatzen diren gainerako agiriak.

Ordaindu beharra

3. art. Ordaindu beharra sortzen da norberaren intereserako ordenantza honetako 2. artikuluan azaldutako agirietako edozein luzatzeko eskaera hutsarekin. Subjektu pasiboa

4. art. Udal administrazioak edo udal agintariak ematen dituzten edo beren eskumenekoak dituzten agiriak eskatu, sortarazi edo haien onura jasotzen duten pertsona natural nahiz juridikoak dira subjektu pasiboak.

Tarifak

5. art. Ordenantza honetako tarifak eranskinean agertzen dira.

Kudeaketa eta dirubilketarako arauak

6. art. 1. Tasa sortutzat hartuko da dokumentua Udalaren erregistro orokorrean aurkezten denean eta udal bulegoetan ordenantzapeko eskabiderik ez dokumenturik ez da hartuko, ez eta tramitatuko ere aldezturik ez bada ordainketa egin.

2. Udal zigiluaren itzulketa behar duen dokumenturik ez da luzatuko dokumentua ematen duen funtzionarioak betekizun hori bete ez badu.

Aurrekinak bilatzeko eskaera orok tasa sortuko du emaitza negatiboa bada ere.

7. art. Udal administrazioaren dokumentu eta berriemateen Sarrera eta Irteera Erregistro Orokorraren ardura duten funtzionarioek emanen dituzten udal zigiludun agiri guztiak zenbatuko dituzte eta Udal Gordailuzaintzan egunero dirusarrerak, dagozkien likidazioekin egingen dituzte.

Arau-hausteak eta zehapenak

8. art. Udal administrazioaren dokumentu eta berriemateen Sarrera eta Irteera Erregistro Orokorraren ardura duten funtzionarioak eta Udal Gordailuzaintzaren langile arduradunak izanen dira iruzurraren erantzule. Iruzurra indarra duten xedapenetan aurreikusitako eran zigortuko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza honetan aurreikusi ez den orotan, Ordenantza fiskal orokorrean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean xedatutakoa aplikatuko da.

Bigarrena.-Ordenantza honek bere testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean indarra hartu eta erabateko eragin juridikoa sortuko du.

TARIFEN ERANSKINA (2017ko abenduaren 22ko 244. NAOn argitaratua)

1. Argitaratu beharrekoak diren agiriak edo iragarkiak tramitatzea: argitaratzeagatik ordaindutako zenbatekoa itzultzea.

2. Honako hauek ematea:

A-4 neurriko fotokopiak: 0,10 euro, orrialdeko.

A-3 neurriko fotokopiak: 0,40 euro, orrialdeko.

Konpultsak: 0,10 euro, orrialdeko.

Ordainagirien bikoizketak/kopiak: 0,50 euro, ordainagiri bakoitzeko.

Aurtengo ekitaldiko ziurtagiriak: euro 1, ziurtagiri bakoitzeko.

Gainerako ziurtagiriak: 2 euro, ziurtagiri bakoitzeko.

Lurzatién gaineko zedulak: euro 1, zedula bakoitzeko.

Faxak igortzea:

–Estatu barnean: 0,30 euro, orrialdeko.

–Estatutik kanpora: 0,50 euro, orrialdeko.

Hirigintzako txostenak: eskatzaileari jasanaraziko zaio txostenaren kostua.

Katastroko txostenak: eskatzaileari jasanaraziko zaio txostenaren kostua.

Salbuespenak: 012 Info-Local zerbitzuaren edo Udalaren web orriaren bitartez eskatzen diren ziurtagiriak tasatik salbuetsita egonen dira.

2017KO ABENDUAREN 22AN EGUNERATUA,